



SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2010ko EKAINAREN 10ekoa, ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILBURUARENA, BIZKAIKO ADINEKOEN ZENTRO PRIBATUEN (EGOITZAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK, EGUNEKO ZENTROAK ETA TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK) SEKTOREAK EMATEN DUEN EZINBESTEKO ZERBITZU PUBLIKOARI EUSTEA BERMATZEN DUENA 2010eko EKAINERAKO ETA UZTAILERAKO DEITUTAKO 24 ORDUKO GREBA EGUNETAN.

ELA, CCOO. LAB eta UGT sindikatueta ordezkariek 24 orduko greba deitu dute 2010eko ekainaren 14, 21 eta 28rako eta uztailaren 1, 5, 8, 12 eta 15erako Bizkaiko adinekoen zentro pribatuen (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko zentroak eta tutoretzapeko apartamentuak) sektorean. Sindikatuen esanetan, enpresaburuen elkarteek (REGEPRI, ARPABI, LARES-Euskadi) ez dute aurrera egin nahi 2009. urterako eta ondorengo urteetarako hitzarmen kolektiboaren negoziazioetan, langileen aldetik hitzarmen hori bultzatzen behin eta berriz ahalegindu badira ere, eta blokeo-egoera hori jarri dute, hain zuzen, grebarako deialdia egiteko arrazoi gisa.

Bizkaiko adinekoen zentro pribatuen sektore horren barnean hartzen dira autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran daudenak zaintzeko gizarte-zerbitzuak, hau da, egoitzetan, etxebizitza komunitarioetan, eguneko zentroetan eta tutoretzapeko apartamentuetan eskaini beharrekoak. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 15.1 artikuluan bildutako zerbitzuen katalogoan jasota daude horiek guztiak, eta lagungarri dira mendetasun-egoeran dauden pertsonen bizitzaren eguneroko zereginak egiteko aukera izan dezaten, horrela beren bizitza independentea sustatzeko eta beren autonomia pertsonala sustatu eta indartzeko.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua greba egiteko eskubidea onartzen du langileentzat, haiek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo Estatu Sozial eta Demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat.

Hala eta guztiz ere, greba egiteko oinarritzko eskubidea gauzatzeko muga eta murrizketa batzuk daude indarrean, komunitatearen ezinbesteko zerbitzuei eutsiz konstituzioak babestutako beste zenbait askatasun, eskubide edo ondasunekiko duten konexiotik eratortzen direnak.

Greba egiteko eskubidea herritarren gainerako funtsezko eskubideen kontrakoa izan daitekeen kasuetan, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, gizartearen ezinbesteko zerbitzuak betetzeko neurriak hartu



behar dira, auzitan dauden funtsezko eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Horren haritik, lan-harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluko 2. paragrafoak «gobernuaren agintaritzari» esleitzen dio greba-kasuetan horrelako zerbitzuak ematea ziurtatzeko beharrezko neurriak hartzeko —hala badagokio— eskumena; Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak agindu horren inguruan egindako interpretazioaren arabera (besteak beste, 11/1981 epaia, apirilaren 8koa, 26/1981 epaia, uztailaren 17koa, eta 51/1986 epaia, apirilaren 24koa) erreferentzia hori Gobernuari edo gobernu-ahalmenak gauzatzen dituzten organoei dagokie.

Eskumen hori gauzatzeak ezin du inondik inora de facto ezabatu greba egiteko eskubidea, ezta eskubide horren edukia baliogabetu ere, eskubidea gauzatu bitartean bermatu beharreko gutxieneko zerbitzuek normaltasun-itxura eman dezaten ahalbideatuz, gutxieneko zerbitzuak ezartzeak murriztailea izan behar duela oinarritzat hartuta. Horregatik, eta dagoeneko ezarrita dagoen jurisprudentziari jarraiki, eskumen horrek, murrizteaz gainera, proportzionaltasun egokiari eutsi behar dio babestu beharreko gainerako eskubideekiko, eta murrizketa horiek ongi arrazoitu eta justifikatu behar dira.

Komunitatearentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak murriztu egiten du grebarako eskubidea gauzatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa da interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzea. Hori guztia dela-eta, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela, —etsi, Auzitegi Konstituzionalaren hitzetan— haien eskubideak grebaren bidez babesteak funtsezko zerbitzuaren hartzaileari zein zerbitzua jasotzeko eskubidearen titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino.

Proportzionaltasun-printzipioa zorrotz betetzeko, honako hiru betekizun eta baldintza hauek hartu behar dira aintzat: greba-eskubidea murrizteko neurria aplikatzeak ezarritako helburua lor dezakeen, edo «egokitasun-judizioa»; helburu hori eraginkortasun berberarekin lortzeko beste neurri neurrizkoago bat ez dagoela behar bezala ondorioztatu ote den «premia-judizioa», eta, azkenik, emandako neurri edo konponbidea neurritzkoa edo orekatua ote den interes orokorrari onura edo abantaila gehiago dakarzkionak auzitan dauden beste ondasun edo balioei eragiten dizkien kalteak baino, edo «proportzionaltasun-judizioa, zentzu hertsian».. Konstituzio Auzitegiak horiei guztiei buruzko ebazpena eman du, honako epai hauen bitartez: 122/1990, 123/1990, 8/1992 eta 126/2003.

Bizkaiko adinekoen zentro pribatuen sektorean 2010eko ekainaren 14, 21 eta 28 eta uztailaren 1, 5, 8, 12 eta 15erako 24 orduko greba-deialdiak hainbat mendekok jasotzen dituzten prestazioei eragiten die, eta kontuan hartzekoa da pertsona horiek, osasun-gabezia larriak izanik, sistemaren laguntza integrala behar dutela autonomiari eusteko eta lege onartuta dituzten mendetasun-maila guztien arreta bermatzeko. Horri erantsi behar zaio laguntza pertsonalaren premia handia dutela bizitzaren eguneroko zereginak egiteko. Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek



guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasota dauden bizirako, integritate fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere tartean daude kasu honetan

Aurrekoarekin bat etorritz, eta komunitatearen interes orokorra —legean isilbidez jaso da, zerbitzuak “ezinbesteko”tzat jotzen baititu— langileei dagokien grebarako eskubidearen eduki halaber ezinbestekoarekin bateragarri egiteko, Gobernu Agintaritzak zenbait neurri ezarri behar ditu egoitzetan ematen diren ezinbesteko arreta-zerbitzuak deitutako greba-egunetan ere emango direla ziurtatzeko. Horretarako, honako hauek hartu behar dira kontuan:

1. Egoitza edo «egoitza-arretako zerbitzua», abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 25. artikuluko terminologiaren arabera, adinekoentzako egoitza-harrerako eta laguntza integraleko zentroa da, etengabeko osasun-zerbitzu pertsonalak eskaintzen dituen, iraunkor bihur daitezkeenak baldin eta egoitza hori adinekoaren ohiko egoitza bihurtzen bada. Kategoria horren barnean, honako egoitza mota hauek bereiz daitezke, martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Tutoretzapeko apartamentuak: Pertsona bakarrentzako eta/edo bikoteentzako etxebizitza autonomoen multzoa, zerbitzu kolektiboekin, aukerako erabilerakoak, intentsitate handiagoko baliabideak behar ez dituen egoera psiko-fisiko eta soziala duten adinekoei alojamendua ematen diena.

Etxebizitza komunitarioa: Bizikidetza-unitatea, 14 plazakoa, nolabaiteko autonomia-maila duten adinekoentzat sortua, eta familiakoaren antzeko giroa eskaintzen duena.

Egoitza: 14 plazatik gorako edukiera duen bizikidetza-zentroa, etxebizitza iraunkor eta partekatua izateko sortua, eta adinekoei etengabeko arreta integrala eskaintzen diena. Gradu handiko desgaitasunak dituztenei laguntzeko behar adinako baliabide materialez hornituko dira ezinbestean.

2. Eguneko zentroko zerbitzuak mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta integrala eskaintzen die egunez, autonomia pertsonala hobetzeko edo autonomia pertsonalaren ahalik eta maila hoberenari eusteko, eta familiei edo zaintzaileei laguntzeko. Ikuspegi biopsikosoziala oinarri hartuta, esan daiteke aholkularitza, prebentzioa, errehabilitazioa, autonomia sustatzeko orientazioa, gaikuntza edo asistentzia-arreta eta laguntza pertsonala ematen dituela bereziki. Araudiak honako zentro mota hauek bereizten ditu: 65 urtez beherakoentzako eguneko zentroak, 65 urtez gorakoentzako eguneko zentroak eta arreta espezializatuko eguneko zentroak, zaintza espezifikoa eskaintzen dituztenak.
3. Adinekoen egoitza-zerbitzuetako eta eguneko zentroetako zerbitzu publikoak “ezinbestekoak” dira, aldez aurretik aipatu ditugun arauak jarraiki. Izan ere, prestazio horien onuradunak adinekoak edota mendeak dira, osasun-gabezia larriak dituztenak, eta, horrenbestez, sistemaren laguntza integrala behar dutenak, autonomiari eusteko eta legeak onartutako mendetasun-maila guztien arretarako; horri erantsi behar zaio laguntza pertsonal handia ere behar dutela, bizitzaren eguneroko zereginak egiteko (39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden



pertsonak zaintzeari buruzkoa). Konstituzioak bereziki babesten ditu pertsona horiek guztiak, Konstituzioaren 50. artikuluan jasota geratu denez, eta Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan jasota dauden bizirako, integritate fisiko eta moralerako eta osasunerako eskubideak ere tartean daude kasu honetan.

4. Egoiliarrek desgaitasun- eta mendetasun-gradu desberdinak dituzte (abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua), eta, horren arabera, laguntzako eta arreta integraleko eta integratuko maila desberdinak ezarri behar dira pertsona horien eguneroko bizitzaren oinarritzko jardueretan. Arreta pertsonalizatua behar duten pertsonentzat laguntza areagotu egingo da, baita diskriminazio-gradu handiagoa edo aukera-berdintasun txikiagoa dutenez ekintza positibo handiagoa behar dutenentzat ere.
5. Bizkaiko adinekoen zentro pribatuen sektorean, tipologiaren arabera eta gutxi gorabehera, 127 egoitza, 72 etxebizitza komunitario eta eguneko 49 zentro daude. Egoitzetan 6.813 pertsonari eskaintzen diete arreta integrala (% 66 mendekoak eta mendetasun handia dutenak dira), etxebizitza komunitarioetan 325 pertsonari (% 67 mendekoak eta mendetasun handia dutenak), eta, azkenik, eguneko zentroetan, 1.109 pertsonari (% 40 mendekoak eta mendetasun handia dutenak dira), hurrenez hurren.
6. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua hiru gradutan sailkatzen du mendekoei eskaini beharreko arreta. Hala, «mendetasun handia» duten pertsonak (III. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera aurrera eramateko, egunean hainbat aldiz, eta autonomia fisiko, mental, intelektuala edo sentoriala erabat galdu dutenez, beste pertsona batek lagundu behar die nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar dute autonomia pertsonalik ezaren ondorioz. «Mendetasun larria» dutenak (II. gradua), berriz, laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez dute nahi kanpoko zaintzaile batek laguntzea; nolana ere, laguntza-premia zabalak dituzte autonomia pertsonalaren arloan. Azkenik, «mendetasun arina» dutenak (I. gradua) laguntza behar dute eguneroko bizitzako oinarritzko hainbat jarduera aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar dute, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.
7. Mendetasuna duten adinekoei eskaintzen zaien arreta oso arreta terapeutikoa da. Izan ere, zeregin errazak, hala nola higiene pertsonalarekin, jantzearekin, otorduak egitearekin edo mugitzearekin zerikusia duten jarduerak, ezinbesteko eta oinarritzko premia dira pertsona horien eguneroko bizitzan, baina ezinbestekoak dira halaber, neurri handi batean, haien kondizio psikosozialei eusteko. Horrelako jarduerarik ezean, denborak aurrera egin ahala, ezagutzazko eta mugitzeko gaitasunak eta gaitasun organikoak narriatu egiten dira poliki-poliki, edo batzuetan oso azkar, denbora-tarte laburretan. Hala, hirugarrenek adinekoei horietan guztietan emandako laguntzak, eta heterogeneotasuna eta adineko bakoitzak bere bereizgarriak dituela ahaztu



gabe, lagungarri dira oroimenaren narriadura geriatrikoak, gaitz psikikoak, hezur- eta muskulu-patologiak eta patologia organikoak mantentzeko, pizteko edo arintzeko, eta lagungarri dira, halaber, pertsona horien gizarte- eta familia-arloetako portaera-ereduak mantendu eta indartzeko, bakoitza, ahal duen neurrian, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak eta jardura instrumentalak autonomiaz eta askatasunez egiteko gauza izan dadin.

8. Sektore horretan pertsona horien eskura jartzen diren zerbitzu guztiek ez dute neurri berean eragiten haien kondizio psikosozialak mantentzeko dagokionez. Ezbairik gabe, "zuzeneko arretako zerbitzuak" dira (erizainak, medikuak, fisioterapeutak, arreta geriatrikoa, talde psikosoziala eta abar, Bizkaiko Foru Aldundiko eskumeneko agintariek interpretatutakoaren arabera) greba-egoeretan bereziki mantendu behar diren zerbitzuak, zuzeneko inplikazioa dutela aintzat hartuta. Adinekoei ematen zaizkien beste zerbitzu batzuk, aldiz, ez dira hain garrantzitsuak, hain zuzen ere aurrekoen mende dauden zerbitzuak (garbiketa, garbitegia, sukaldea eta abar) edo egoitzetako instalazio eta zerbitzuen koordinazio, mantentze eta segurtasunarekin zerikusia dutenak. Eta gauza bera esan daiteke eguneko zentroetako erabiltzaileei dagokionez.

«Zuzeneko arretako zerbitzuen» barnean ditugu, halaber, otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak, botika-hornidurak, posturaldaketa, siesta terapeutikoak eta higiene pertsonala, eta zeregin horiek guztiek osatzen dute zerbitzuko erabiltzaileen —mendetasun handia dutenen, bereziki— osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati bat. Altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo janaria ahoratzeko laguntzak ere «zuzeneko arretako zerbitzutzat» jotzen dira.

Egoitzetan eta eguneko zentroetan pertsonen osasun narriatua zaintzeko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren zati dira zeregin horiek guztiak, Konstituzioaren 15. eta 43.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

9. Zentro horien ohiko funtzionamenduari dagokionez, pertsonen jardura funtzionala eta ziklo biologikoak kontuan hartuta, aipatzekoa da egunean zehar egin beharreko zereginen intentsitatea irregularra dela, eta intentsitate handiena goizeko lehen orduetan (altxatzea, higiene pertsonala, janzteak, gosaltzea, botikak eta abar), bazkaltzeko orduan, askaltzeko orduan (siesta terapeutikoetan oheratzea eta altxatzea barne, ondoriozko postura-mugimenduekin batera; botikak), eta eguneko azken orduetan (afaria, oheratzea, pixoihalak aldatzea, botikak eta abar) dela nabari, une horiek arreta pertsonalizatu handiagoa eskatzen duten neurrian. Horrekin bat etorriz, ordu horietan beharrezkoa da langile horietako gehiago egotea, egoiliarren premiei erantzuteko jardura txikiagoa den gainerako orduetarako ezarritako oinarritzko langileei laguntzeko.

Gainera, psikogeriatrico unitate berezi batzuk ere badaude, diagnostiko psikiatrico larri edo kronikoak (neurosiak, psikosiak eta jokabide larriak dakartzaten alterazio larriak) dituztenen arretarako. Modulu horiek itxita egoten dira normalean, zuzeneko arretako langile espezifikoaren ardurapean eta osasun-protokoloekin bat etorriz.



Gizarte- eta osasun-arloko zenbait unitate berezi ere badaude. Abenduaren 26ko 235/2006 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, unitate bereziak dira, gizarte- eta osasun-zaintzen premia larria duten mendekoei osasun-ospitaleratzetik gizarte-egoitzaren arretara bitarteko trantsizioan behar dituzten prestazioak emateko berariaz sortu direnak. Egoitza-unitate horiek guztiek mediku eta erizainak dituzte 24 orduetan, baita, *ratiotik kanpo*, zuzeneko laguntzako langile espezifikoak ere, espezializatuak zein espezializatu gabeak.

Horren guztiaren ondorioz, jarduera jaisten den orduetan ere, modulu horietako egoiliarrentzako arreta pertsonalizatuaren intentsitatea ez da jaisten, horien osasuna eta integritatea babesteko.

10. Grebaren eraginpeko zentroen espazio-konfigurazioa ere kontuan hartzekoa da. Konfigurazio horri jarraiki, greba-egoeretan giza baliabideak banatzerakoan kontuan hartzekoa da, batetik, egoiliarrei eman beharreko arreta egokiro eta kondizio egokitan eman behar zaiela, eta, bestetik, mantendu beharreko gutxieneko zerbitzuak ondo antolatu behar direla, bete behar dituztenei ongi iristeko eta arriskurik gabe jarduteko aukerak emanez.

11. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan osasun-sistema unibertsala dagoenez, eta grebaren iraupena kontuan izanik, zera pentsa daiteke, osasun-arreta behar duten larrialdiko eta atzeraezinezko egoeretan egoiliarrei arreta ematea bermatua dagoela larrialdiko osasun-sistemaren bidez.

OLT/EUDen kasua bestelakoa da; izan ere, kasu askotan, (batez ere, mendekoen eta mendetasun handikoen kasuan) sendaketak egitea eta botika-dosiak prestatu beharra kronikoak izaten dira, eta, beraz, jarduera horiek ez badira betetzen, zainketa horiek behar dituztenen osasuna arriskuan egon daiteke. Horrelako arreta behar duten egoiliar mendekoen eta mendetasun handikoen kopurua handia izaki, greba-kasuan kolektibo horri arreta emateko ezinbestekoak diren gutxieneko zerbitzuak langileen % 70 izango dira, langile horien eginkizunak oso espezifikoak direlako, horien jarduerak garrantzi handia duelako bete beharreko ezinbesteko zerbitzuen guztirakoan, eta greba egiteko deitutako langile guztietatik ehuneko txikia osatzen dutelako.

12. Mantentze-lanetako zerbitzuak ezinbestekoak ez, baina oso lagungarriak izan badira greba honetan gutxienez hartutako gainerako zerbitzu eta instalazioen funtzionamendua egokia izan dadin. Gutxieneko zerbitzu horien funtzionamenduan gorabeherak eragin ditzaketen balizko ezustekoei —alegia, zerbitzuen funtzionaltasuna nabarmen kaltetu edo ezinezko bihur dezaketenak— aurre egin beharko zaie, babestu beharreko gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak bermatuz.

13. Greba honen deialdiaren eremuan, zentroak askotarikoak eta hetereogenoak dira; pertsonen mendetasun-mailetan ere berezitasunak askotarikoak dira, baita kudeaketa-ereduak ere, langileen plantillei eta koadranteei dagokienez. Hori dela-eta, honelako Agindu batean horiek guztiak homogeneizatzea oso zaila da.



Alderdi horiek ere kontuan izan behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazteko garaian, egoiliarren oinarritzko eskubideak babesteko ahalegina egin behar baita, betiere gaur egungo errealitate soziokulturalarekin bat datozen duintasun-baldintzak betez, baina ezinbesteko baldintzetara murriztuta, greba-eskubidea ere babestearren eta greba egitera deitutako langile ahalik eta gehienek oinarritzko eskubide hori baliatzeko aukera izan eta greba egintzat har dadin.

14. Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan Euskal Autonomia Erkidegoko adintsuentzako etxeek bete beharreko baldintzak arautzen dira (1. art.); erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak ere finkatzen dira —goragoko mailako beste Arau batzuetan xedatutako Oinarritzko Eskubideak garatuz— (5. art.), baita egoitza-baliabide horiek irekitzeko eta funtzionatzeko baimenen betekizunak —legezkoak eta teknikoak— ere (7. art.). Dekretu horren II. eranskineko (egoitzak) 10. zehaztapen teknikoan eta III. eranskineko (etxebizitza komunitarioak) 8. baldintzan langileen gutxieneko ratioak finkatzen dira; hain zuzen ere, administrazio eskumendunaren ustez gizarte-baliabide hori behar bezala bete ahal izateko ezinbestekoak diren langileen gutxieneko ratioak, betiere langileen lan-zamak eta erabiltzaileek behar duten arreta kontuan izanik. Ratio horiek saihestu daitezke greba-egoeretan, gutxieneko zerbitzuak finkatzeko garaian, baina egoiliarren oinarritzko eskubideak bermatu egin beharko dira, ezinbestean.
15. Laguntza behar duten adinekoentzako Eguneko Zentroak ere antzeko kasuan daude; urriaren 17ko 202/2000 Dekretuaren bidez arautzen dira zentro horiek, eta baimentzeko irizpideak 7. artikuluan araututa daude, I. eranskinari dagokionez (8. idatz-zatia, hain zuzen, langileei buruzkoa da).
16. Greba-deialdi honen aurretik beste bat ere egin zen 2010eko apirilaren 14an eta 16an, 24 ordukoa. Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuak txostenak egin ditu egun horietarako finkatutako gutxieneko zerbitzuak betetzeak egoiliarrengan izandako ondorioei buruz eta grebaren gorabeherari buruz. Txosten horietatik honako erreferentzia hauek nabarmenduko ditugu:

Erabiltzaileak ohetik jaikiarazi eta oheratzeari dagokionez, hainbat erdioheratu oheratutzat hartu zituzten, eta erabiltzaile batzuk ez zituzten jaikiarazi siesta egin ondoren.

Elikadurari dagokionez, hainbat dieta aldatu egin ziren —turmixarekin— eta elikagaiak presaka eman zitzaizkien. Otorduak ere aldatu egin ziren, otordu batetik besterako denbora tarte luzeak edo laburtuak. Otorduetatik kanpo ez zuten hidrataziorik eman. Zenbait egoiliarri ez zioten askaria eman.

Garbiketari dagokionez, pixoihalak gutxiagotan aldatu zirenez, garbiketaren gabeziak izan ziren; duxak eta aho-higienea bertan behera utzi zituzten.

Orain arte azaldutakoa kontuan izanik, eta laburpen moduan, Bizkaiko Adinekoentzako Zentro Pribatuetan (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko



zentroak eta tutoretzapeko apartamentuak) 2010eko ekainaren 14, 21 eta 28rako, eta uztailaren 1, 5, 8, 12 eta 15erako deitutako 24 orduko greba-eskubidea baliatzen denean, honako jardura hauek egiteko ezinbestekoa den langile kopuruak lanean egon beharko du, nahitaez: ohetik jaikiarazi eta oheratzeko, garbiketa eta higiene pertsonalerako, elikagaiak prestatu eta emateko, behar den osasun-asistentzia (botikak, sendaketak, agindutako tratamenduak...) emateko. Izan ere, jardura horiek behar-beharrezkoak dira erabiltzaileen osotasun fisiko eta morala bermatzeko, besteak beste, honako dekretu hauetan xedatutako moduan: Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretuan (5. art.); eta Laguntza behar duten adinekoentzako Eguneko Zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretuan, betiere Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeari dagokionez. Oro har, gutxieneko zerbitzu horiek soziosanitarioak eta arreta integralekoak direla pentsatu behar dugu.

Hori dela-eta, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuko 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da eta gatazka honen eraginpean hartutako alderdi guztiei entzunaldia eskaini diegu, idazki bidez, alegazioak egin zitzaizkion gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak bermatzeko premiaren inguruan, eta, kasuan kasu, deitutako greban bete beharreko gutxieneko zerbitzuak zehaztearen inguruan. Errekerimendu horretan, gutxieneko zerbitzuen proposamena egiteaz gain, memoria bat eskatu zitzaizen Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren apirilaren 12ko eta 13ko Aginduak aplikatzeko garaian sumatutako gorabeherei eta gabeziei buruz; horrekin batera, iradokizunak egiteko ere eskatu zitzaizen.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Ikuskaritza eta Kontrol Zerbitzuak txostena egin du.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 6ko 538/2009 Dekretuaren 4.2 artikulua eskumena eman dio Sail horren titularrari, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate edo erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean, Autonomia Erkidegoko funtsezko zerbitzuak bermatzeko neurriak ezartzea ere badagokio, betiere Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege-Lege Dekretuaren 10. artikuluen bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraiki. Eskumen hori Gobernu Batzordeak eskuordetuta baliatzen da, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuan xedaturikoaren arabera.

Horregatik guztiatik, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak, Eusko Jaurlaritza eskuordetuz, honako hau

EBATZI DU:

Lehen.- 1. Bizkaiko Adinekoentzako Zentro Pribatuetan (egoitzak, etxebizitza komunitarioak, eguneko zentroak eta tutoretzapeko apartamentuak) 2010eko ekainaren 14, 21 eta 28rako, eta uztailaren 1, 5, 8, 12 eta 15erako deitutako 24 orduko greba-eskubidea baliatu ahal izango da, baina betiere gutxienekotzat hartu beharreko eta egoiliarren bizitza eta osasuna bermatuko duten zuzeneko arretako zerbitzuak



betez gero, haien premien arabera. Beraz, ohetik jaikiarazi eta oheratzeko behar diren zerbitzuak (jarrera-aldaketak eta abar barnean hartuta) eman beharko dira, osasun-asistentzia ematekoak (botikak, sendaketak...), baita higie pertsonala, elikadura eta botikak ematea ere.

2. Jarduera horiek guztiak langileek egin beharko dituzte, jarraian aipatuko ditugun kopuruan eta moduan:

2.1. Oro har.

2.1.1. Ratioak kalkulatzeko garaian, ehunekoa «1» baino txikiagoa eta «0,5» edo handiagoa baldin bada, gutxieneko zerbitzuetan beste pertsona bat sartu beharko da.

Gehieneko ratioa aplikatu ezin den kasuetan —ohiko moduan lan horiek egiten dituzten langileen kopurua baino handiagoa delako—, langileen % 100ak bete beharko ditu gutxieneko zerbitzuak.

2.1.2. Plazei dagokien kalkulua egiaz okupatutako plazen gainean egingo da.

2.1.3. Artikulu honetan gutxienez hartutako zerbitzuren bat ez duten zentro edo arloetan, aipatzen den langile kopuru hori ez zaio gehituko beste zerbitzu edo arretei.

2.1.4. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, Agindu honetan finkatutako ehunekoak eta ratioak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan.

Era berean, «bat datozen» gutxieneko zerbitzuak nork bete behar dituen ordena honi jarraiki erabakiko da: lehenik, ohiko moduan zerbitzu horiek egiten dituzten eta greba egitera deituta egon arren, libreki greba ez egitea erabaki duten langileei deituko zaie; bigarrenik, greba egitera deituta ez dauden eta ohiko moduan horrelako lanak egiten dituzten langileei; eta, azkenik, greba egin nahi duten langileengana joko da.

2.1.5. Medikuek bestelako agindu berezi eta zehatzik ematen ez badu, behintzat, elikagaiak prestatu eta egoiliarrei ematea ahalik eta modu sinple eta errazenean egingo da, erabili eta botatzeko elementuak erabiliz eta lanak egiteko ahalik eta denbora gutxienez eskatzen duten protokolo edo metodologiaren arabera, grebaren eragina suma dadin eta greba egin nahi duten ahalik eta langile gehienek eskubide hori baliatu ahal izan dezaten. Ezin izango da, inolaz ere, egoiliarren osasuna eta osotasuna arriskuan jarri.

2.1.6. Laguntza behar dutenen kasuan, higie pertsonalari eta botika edo elikagai terapeutikoak emateari —betiere medikuek aginduta edo osasun-protokoloan jasota badago— lehenetsuna emango zaio arretan. Halaber, higie pertsonalaren bidez egoiliarren osasuna eta osotasuna bermatuta egongo da, beti, grebaldian.

2.1.7. Garbiketa-lanak jendearen osasunerako edo segurtasunerako berehalako arrisku larria izan dezaketen arloetan baino ez dira egingo. Horretarako, Laneko eta/edo Osasuneko Arriskuen Prebentzioan jasotako xedapenak eta protokoloak hartuko dira erreferentziazko irizpidetzat.

2.2. Egoitza Zentroak

2.2.1. Egoitza guztiak.

2.2.1.1. Ezinbesteko lanak —ohetik jaikiarazi, oheratu, higiene pertsonala, elikadura eta botikak ematea— egiteko, gutxieneko zerbitzua ohiko moduan lan horiek egiten dituzten gerokultoreen % 70 izango da, betiere ratio hauek gainditu gabe:

	Ezinbesteko lanak	Gehieneko ratioak
Goizean	Ohetik jaikiarazi, higiene pertsonala, gosaria eman, botikak eman eta jantzi	1/10
Eguerdian	Bazkaria eman eta siesta egiteko oheratu	1/12
Arratsaldean	Siestatik jaikiarazi eta askaria eman	1/14
Gauean	Afaria eta botikak eman, higiene pertsonala eta oheratu	1/12

2.2.1.2. Gainerako lanetarako gutxieneko zerbitzua gerokultoreen % 50 izango da; 1/20 ratioa ezin izango da gainditu eta honako jarduera hauek lehenetsiko dira: zaintza-lanak, eskaera puntualei arreta ematea (komunera joan, ura edan eta askotariko premiak...), higiene pertsonala, hidratazioa eta jarrera-aldaketak.

2.2.2. Unitate psikogeriatricoak eta sozio-sanitarioak.

2.2.1.1. Ezinbesteko lanak —ohetik jaikiarazi, oheratu, higiene pertsonala, elikadura eta botikak ematea— egiteko, gutxieneko zerbitzua ohiko moduan lan horiek egiten dituzten gerokultoreen % 70 izango da, betiere ratio hauek gainditu gabe:

	Ezinbesteko lanak	Gehieneko ratioak
Goizean	Ohetik jaikiarazi, higiene pertsonala, gosaria eman, botikak eman eta jantzi	1/8
Eguerdian	Bazkaria eman eta siesta egiteko oheratu	1/10
Arratsaldean	Siestatik jaikiarazi eta askaria eman	1/12
Gauean	Afaria eta botikak eman, higiene pertsonala eta oheratu	1/10

2.2.1.2. Gainerako lanetarako gutxieneko zerbitzua gerokultoreen % 50 izango da; 1/14 ratioa ezin izango da gainditu eta honako jarduera hauek lehenetsiko dira: zaintza-lanak, eskaera puntualei arreta ematea (komunera joan, ura edan eta askotariko premiak...), higiene pertsonala, hidratazioa eta jarrera-aldaketak.

2.3.- Etxebizitza komunitarioak



2.3.1. Gutxieneko zerbitzua gerokultoreen % 50 izango da.

2.3.2. Ohetik jaikiarazi, oheratu, higiene pertsonala, elikadura eta botikak emateko ohiko ordutegian, eta zerbitzua betetzeko, ehuneko hori % 20 handituko da.

2.4. Eguneko zentroak:

2.4.1. Gerokultoreen % 50 egongo da.

2.4.2. Otorduetan (botikak ematea barnean hartuta), eta zerbitzua betetzeko, ehuneko hori % 20 handituko da.

2.5. Sendagileak eta OLT/EUDak

2.5.1. Sendagileen % 50 eta OLT/EUDen % 70 egongo da.

2.6. Sukaldeko langileak.

2.6.1. Sukaldeko langileen % 50 egongo da. Greban, sukaldeko langileek elikagaiak prestatu egin beharko dituzte, baina ez bestelako lanik.

2.7. Garbitzaileak

2.7.1. Garbiketako langileen % 20 egongo da. Greban, Agindu honen **2.1.7** idatz-zatian aipatutako garbiketako lanak baino ez dituzte egingo garbiketako langileek.

2.8. Mantentze-lanetako langileak.

2.8.1. Jaiegunetan bezala lan egingo dute, eta jendearen osasunerako edo bizitzarako arrisku larria izan dezaketen premiazko eta atzeraezinezko gertaerei baino ez diete erantzungo.

Bigarrena.- Dagozkion administrazio-izapideak betez gero, aipatutako zerbitzuak aldatu ahal izango dira grebaren iraupenagatik, edo arrazoi higieniko biosanitarioak edo bat-bateko ezohiko arrazoiak direla-eta ezinbestekoa baldin bada.

Hirugarrena.- 1. Goian aipatutako zerbitzuak greba egin behar ez duten langileek emango dituzte, ahal dela.

2. Langileen ordezkariak entzun eta gero, Enpresa Zuzendaritzak izendatuko ditu gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileak eta langile horiek, txandaka, bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarreko legedian ezarritako mugak errespetatu beharko dira.

Laugarrena.- Agindu honen aurreko idatz-zatietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketa edo geldialdien ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko dira eta horiek egiten dituztenak erantzule izango dira, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.



Bosgarrena.- Aurreko artikuluetan ezarritakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak ez dira inolaz ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen tramitazioa eta ondorioak mugatuko ere.

Seigarrena.- Agindu hau jakinarazten den egunean hasiko da indarrean.

Zazpigarrena.- Ebazpen honen berri eman behar zaie interesdunei, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie eta horren aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion Salan, Ebazpena jakinarazten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedaturikoaren arabera.

Era berean, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraiki, honako hau ere jakinarazi behar zaie: Agindu honen aurka Aukerako Berraztertze Errekurtsoa aurkez daiteke Lan Administrazioko Agintaritzan, Agindua jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 10a.



JAILURITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

GEMMA ZABALETA ARETA
ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILBURUA